


# - SAIAKERA -

JOXE AZURMENDI



Hogei urte iragan dira Eustakio Mendizabal «Txikia» hil zutenetik. Orain dela zortzi urte, bere biografia saio batek aldizkari honen lehendabiziko zenbakiari eman zion hasiera. Urrats bat besterik ez zen izan. Iaz, Jon Aranak, Susa argitaletxearen eskutik kaleratutako «Hitz etena» liburuan, «Txikia»ren arlo literario, bere lan poetikoa ezagutzeko parada eskaini zigun. Gaurko honetan Joxe Azurmendik heldu dio gaiari, edo hobe esanda pertsonaiari. Ondoko bi artikulua hauetan Azurmendik «Txikia»ren obraren testuingurua aztertu du, bere lan poetikoaren balioa eta iturriak. Gerraren presentzia, euskararen deia, krisia, «abertzale belaunaldi baten mitoa».

Kulturgintzatik ETara

## «Txikia»: Pistolek moztu kantua

**larrun** Txikiarentzat bere ko-  
tzientziaren errotiko bo-  
kazioa bezala izan da borroka politi-  
koa. Borroka armatua. «Zer duzu nai,  
Aberri, / atxilotuen erri! / Zer duzu /  
deia-  
ren deiez / neri / deika negarrez?». Aberria negarrez eta deika dagoen ama da. Txikiaren poesia bakarrik ez: haren esistentzia ere beteta dago simbolismo erlijiosoz (adierarik positi-

boenean). Txikiak berak azaltzen du bere bizitza sakrifizioarako eskaintza bat bezala, aberriaren deiari erantzunez: «prest bainago, zugatik / naizen guzia gaurtik / eman / ta neke oro / kemen / guziz jasateko». Badakigu handik ondoriatu zuen praxia eta haren azkenena. Hogei urte da hil zutela. Guruzbidea bukatu zuela, Ostegun Santuz hain zuzen. Hala zion bere

buruaren opariko bertso bortitzak:

*Esazu, ba, itz erdi...*

*ta or nauzu Euzkadi!*

**ABERTZALE BELAUNALDI BATEN MITOA.** Eustakio Mendizabal «Txikia», «abertzale belaunaldi baten mitoa», gauza diferente asko izan da, eta



Eustakio Mendizabal «Txikia», «abertzale belaunaldi baten mitoa», gauza diferente asko izan da, eta horien artean poeta.

horien artean poeta. Haren poesiak Hitz etena liburuan, Susa 1992, Jon Aranok bildu eta hitzaurre argitsu batez aurkeztu ditu. Bi hilabete eskasean lehen argitalpena agortzea eta bigarrena egin behar izatea, seinale da, Txikia benetan, ez oso egoki baina esan ohi den gisan, bizirik dagoela nolabait. Hurrengo lerrook Jon Aranoren edizio horretan oinarritu dira.

koitzaren mailan, nahiz kolektiboan, horiek prozesu konplexuegiak direla, aitortu behar, psikologikoki, moralki, politikoki, lau lerrotan esplikatzen nola izan ziren eta diren. Nola izan ez ziren behintzat, ikasi ahal izango du-gu Txikiaren adibidean.

Izan ere askotan ETA, edo borroka armatua, gazte oihes batzuen inkulturaren azalpen legez agertarazi nahi

Txikia, besteak beste, balaunaldi baten historia da, niri hori interesatzen zait hemen. Horregatik dauka jendeak gogoan. Poesia horiek irakurriz, ba, nik orain, balaunaldi horretako gutxienez parte baten kontzientziartzea nola izan zen, gogoratu nahi nuke, Francoren azpian. Belaunaldi horretako parte batena eta kontzientziartzearen bakarrik partetxo batena, doiago esateko. Poesiak baino hobeto Txikiaren bizitzak eta heriotzak erakusten duenez, kontzientziartze horrek armak hartzera eraman bait zuen bera eta zenbait gazte askatasun borrokan eta, beraz, hemen ahal esan baino aspektu antz gehiago bada kontzientziartze horretan. Nahiz ba-

izaten da. Eta Txikiaren kasuan, esaterako, ongi dakusagu, borroka armatua borroka politikoaren luzapena dela, esan ohi bada, harentzat batez ere kulturalaren hedapena zela hain zuzen. Euskal Herriak daukan arazoa barnenean kulturala da guztiz gain, kultura bere sakon osoan ulertuta: naziogintza, bere buruaren berregintza. (Baina: kulturagintza horretarako medio efikazaren problema orobat —alde hori ahaztea, problema bere alderdi zerutarrean bakarrik begieman nahi izate eroso da—eta). Gizarte modernoaren eta, gure balaunaldiaren kasuan, «el milagro español» frankistaren alienazio kolektiboari begira idatzi zuen Txikiak, seguru asko gaur arraroa emango duen hau:

*Zorigaiztoko*

*erria*

*jakintza-kulturak*

*baño*

*ardandegi ta*

*futbol-zelaietako*

*bilkurak*

*gogozkoago*

*ditun erria...*

#### **KONTZIENTZAPENA INTERES KULTURALA DENEAN.**


68ko maiatza gerraosteko kultura ustel triunfalista europarraren aurka izan bada gazteria ikaslearen bihurritza, euskal gazteen errebolta beren sustrai espezifiketatik eta beren modu propioan, «el milagro español» eta «25 años de paz» frankistako izpiritu nagi eskumakila txepelaren aurka ideal berri goitarragoen ikurrina altxatzea izan da garai bereantsu. Garapen industrialak, botere berriaren establimentuak alegia (oraingo antzera, berriro), konfromismo malgu batean atsedean eta laketarazi du gerra galdutako euskal gizartea. 50. etako Txillardegigandik 60. etako Txikiagaino dagoena kultura filisteo horren ukoa da etengabe. Eredu kontsumistaren arbuioa («nork-bere / sakela beste / buruauste» gabekoa: cfr. Hitz etena, or. 77); «panem eta circenses» aliena-

Txikiarentzat bere kontzientziaren errotiko bakazioa bezala izan da borroka politikoa. Txikiak berak azaltzen du bere bizitza sakrifiziorako eskaintza bat bezala, aberriaren deiari erantzunez

tzailearen denuntzia: «gezur kiratsez / kirol antzuz / futbol merkez, / zure ondamiñez / etsaiak asmatuiko / opio-belarrez, / loarazi nai izan zaituzte (Euskal Herri)» (78). Eta abertzaletasun akomodatu folkloriko baten kontraesan salaketa (Salvatore Mitxelena-ren tonu oso antzekoetan aurkitzen dena Txikia baitan): «Aberrri eta euskal izenak / guziz zaie arrobide / ta antzinako oitura zarrak / oro nai lituzke gorde! — Euskalerrri gorde nai dute / eta nik (euskarak) damaiet lotsa...» (40).

60. etako haizeak euskal herrietan indarrez barreiatu duen kontzientzia berri baten ispilua da Lazkaoko beneditar ikasle gaztea. Batzuek enpeinu handiz tematzen dira abertzaletasunean oraintxe bertan ere arrazismoa, historiaren mitifikazioa, hertsukeria ideologikoa, fanatismoa besterik ez ikusi nahita. Funtsean XIX. mendea eta karlismoa. Beti errezagoa da ni oso modernoa ateratzea, besteak trogloditak badira denak. Historia ahazten tematzea da ordea. Gerra eta gerraren ondorioak euskal jendearen senti eta pentsamenduetan, ondoko industriakuntza eta base-riren eta herritxikien hustuketa, Europako literatura, zine, moda eta pentsamendu korronte berrien eragipena, belaunaldien gurgipila eta aldarro dialektikoak, labur: bizitzaren legea. Denbora, abertzaletasunarentzat ere, ez da geratzen geldia. Txikia, bitartean Mirande, Krutwig, Salvatore Mitxelena, Koldo Mitxelena, Txillardegiri eskerrak biztua zen kontzientziarte berri baten erakusgarria da. Beste aro bat erakusten du gure historian.

Gaur berriro bitxi samarra irudituko bada ere apika, kritikiko batzuei entzunda pentsatuko ez litzatekeena izan arren bereziki, belaunaldi honen kontzientziapena kultur-interesaren ia sinonimoa da; eta abertzaletasuna definitzen duena, batez ere interes kulturala da. Horrela ulertu behar dira goiko bertsoak: zorigaiztoko herria dela, hots, kontzientzia galdutakoa eta bere buruagandik alienatua dela, tabernak eta futbola maiteago dituen (bere) kultura baino. ETA sortu eta zutitu duen belaunaldiaren kontzientzia abertzalea lehen-lehenik kulturala izan da, zalantza gabe



Denbora, abertzaletasunarentzat ere, ez da geratzen geldia. Txikia, bitartean Mirande, Krutwig, Salvatore Mitxelena, Koldo Mitxelena, Txillardegiri eskerrak biztua zen kontzientziarte berri baten erakusgarria da.

orain etsaiek besterik nahiago izango balute ere. Baina gauzak izan diren bezalaxe izan dira.

**INTELEKTUALA?** Ohartxo batzuk, uste dut, horregatik, zilegi izango ditudala hemen. Errepikatuta ikusi dut, Txikia ez omen zela «intelektual» bat. Batetik, estudiatzen baino gustorago baratzean aritzen omen zen, etab.: neuri normal hutsa iruditzen bait zait

**A**razoiak disidenteari eskatzen zaizkio; konformistak ez du justifikazio teoriko sakonik behar, justifikatuta egoteko

hori dinamismoz betetako gazte bategan. Intelektualari ere utzi behar-ko zaio gaztetan gaztea izaten, ezta? Noizpati ez zen makala izango intelektual, baina gogoratzen du, gaztetan eta ez hain gaztetan ere Immanuel Kant zeritzon mutik batek oso erraz ihes egiten omen ziola estudioari lanera nahiz parrandara:

Königsbergeko Hamann irakasle errigortsuak erasiatzen ei zuen, beraz, Kant hori, beti denborapasa sozial haietan distrahituta, sekula ez zela iritsiko lan intelektual seriorik egitera. Gero, Seminarioan denok ezagutu dugu, barruko bere «intelektuala» nahikoa berandu esnatzen zitzaion mutik euskalduna. Utz ditzagun kontuok.

Nik uste dut beste esanahi bat daukala, Portellek Txikia «poco brillante inetelectualmente» izan zela, idatzi bazuen hain zuzen haren hilburukoan. Hor dagoena beste problema bat da. Bitxia bait da: inoiz ez da komentatzen Felipe Gonzalez, edo Ardanza, ez dela «intelektual handia». (Ez, ez da: eta zertarako dauka izan beharrik?). Baina bai: Arana Goiriz «la simplicidad o elementalidad de su trabajo ideològiko» komentatzen da (J.J. Solozabal). ETArri buruz: haren «mezu teorikoa» erkina omen da. Zeri erantzuten diote irazkin moduok? Nondik sortzen da problema? Hau da, autorearen zein problemak sortzen digu problema, garbi esateko, edo: zergaitik espero da, nonbait, interbistatzen edo aurkezten den militantea «intelektuala» izan dadila, eta «handia» ez bada gainera, desengainatuta zergaitik sentitzen da? Behar-



**ETA sortu eta zutitu duen belaunaldiaren kontzientzia abertzalea lehen-lehenik kulturala izanda, zalantza gabe orain etsaiek besterik nahiago izango balute ere.**

bada intelektualaren mito bategatik... Hori ez dago gutxi.

Baina egiazkoago arrazoia, nik us-te, beste nonbait ikusi behar da eta egunero ikusten da: guk geuk justifikatua ikusten ez dugun eta onartzeko mukertzen garen praxi berri eta kezagarri baten aurrean (Sabinen nazionalismoa, Txikiaren borroka ar-

zaizkio; konformistak ez du justifikazio teoriko sakonik behar, justifikatuta egoteko. Alde horretatik Txikia intelektual eskasa zen eta oraindik intelektual eskasak izaten jarraitzen dugu denok hemen.

Intelektuala ez dakit, dudarik ez dago, Txikia inteligentea zen. Arki-lokoaren ateraldi baten arabera, «as-

libros» zirelakoan eta ez baziren izatera behartzeko asmoan. Idealistak ez baino ideologoak (horiek, beste liburu bat deskubrituz, istante oportunoan, Alderdi berri batean deskubritzen dizute leku egokiagoa), Txikiaren inguruan ez ziren falta eta orain ere ez direla gutxi, ematen du, horrelako «intelektualak», errealtatea liburuen bitartez bakarrik ikusten eta ikasten dutenak, eskolak eta unibertsitateak produzituriko erroto akademikoak, periodikoaren fededunak.

Txikiak, oster, irakurzale amorratua izan arren, ikasbideek gogoratzen dutenez, errealtatea bere baitan, inguruko lagunetan, herriko jendeagan, fabrikako langilerian, familian, gudari derrotatua izandako aitaren esperientzian ikasi du, beti zabalik begiak eta belarriak. Eta Txikia esaten dudanean, haren belanaldia esaten ari naiz. Batzuk hilak, besteak preso, ihes eginak, ezkutuak, edozein tokitan lanean oraintxe. Guziz argia batez ere ikasi zuen errealtateari eta bideari ondorio guztiekin lotzeko izan da Txikia, sakrifizioa kontzientzia oso-oso azumitzezaino. «Euskaldun aske gaitzen,

**A**skotan borroka armatua, gazte oihes batzuen inkulturaren azalpen legez agertarazi nahi izaten da. Eta Txikiaren kasuan, ongi dakusagu, borroka armatua, batez ere, borroka kulturalaren hedapena zela

matua: gu geu kuestionatzen gaituen edozein jarrera), justifikazioa eman diezagutela, esijitzen dugu. Eta gu konbentzitzeko eta konbertitzeko adinako arrazoiak ez badauzkate, haien postura «intelektualki» ahula iruditzen zaigu. Hots, a priori gure betiko posizio eroso, status quo sozial inperantearekin konformea, arrazoizkoa da, intelektualki sendoa. Arrazoiak disidenteari eskatzen

ko dakizki gauzak azeriak; handia baina daki gauza bat krikinoak» (trikuak, sagarroiak). Txikiak gauza handi bat ikasi zuen, teoriak asko alferrik ez baino: bere herriaren errealtate sinplea. Etxean, kalean eta liburuetan nazkatuta, «munduko liburuan» ikasi zizun egia. Hainbat libururekin burua nahastuta irten du mundura Don Quixotek, gauzak eta historiak «según el habia leído en los

eman / nai nuke naizen guzia» (or. 54). Ez dugu ukatuko, hor zoko problematiko asko dagoela, edozein adieratan, baina orain horrelaxe hartuko dugu, beste gabe.

**EUSKARA «ABERRIAREN MUIN ETA OINARRI».** Gerraondoko abertzaletasun gaztean, ezaugarri arrunt bat, esan liteke, euskaltzaletasuna eta, halaber, harrizterainoko literaturzaletasuna dela. (Sarrionandia ez dago aitzindari gabe: historia txiki bat ez ote da posible?). Kontzientzia abertzale berri honetan aberria batez ere hizkuntza da. Ez, arraza, odola. Hau da, XIX. mendeko euskaldun liberal-karlistentzat Euskal Herria Foruak zen. Aranarentzat, arraza. Oraindarrentzat, euskara. Txikiaren bertso seguru asko famatuena, 1967ko «*Ama txukatu malkoak*» (or.39-40), kontzientzia horrek inspiratu ditu. Euskara aitortzen da hor «aberiaren muin ta oinarri» (40).

Poesia horretan «buru-belarri lanera» dei egiten du Txikiak. Belaunaldi honentzat euskararen aurkikundeak, deskubritzeko eta birreskuratzeko lana esanahi izan bait du. (Gramatika gustora estudiatu duen

belaunaldi bakarra!). Seminarioetan baldintza hobekak zeuden beste inon baino frankismoan. Ez da pentsatu behar erraztasun handiak zeudenik halere; eta etxeengatik baino gehiago, euskararen beraren egoeragatik.

Jon Aranoren hitzaurrean ongi ematen da berri, Txikiak nola bere kisa ahalegindu behar izan zuen.

Intelektuala ez dakit, dudarik ez dago, Txikia inteligentea zen. Txikiak gauza handi bat ikasi zuen, teoriak asko alferrik ez baino: bere herriaren errealitate sinplea

Beharbada gaurko irakurle gazteari sineskaitza egingo zaio, esate baterako, hainbat autoreren pasarteak eta orriak koadernoan kopiatu izatea «euskara ikasteko»: inolako testurik ez zegoela, imaginatu beharko du. Inolako irakurgairik zegoen asko.

(Denbora, aldiz, telebista kendu eta egunean irakurtzeko libre geratzen den guztia).

Alegia, Lazkaoko bibliotekan Orixe, Lizardi eta euskal literaturako beste autore «irakurgarrienak» egon bazeudela, ez dago zalantzarik. Baina obra bakoitzeko ale bat edo birekin ez da asko iristen hogeit hamar berrogei lagunentzat. Gandiagak kontatuta dauka, nola izaten zen hori. Ni gogoratzen naiz, euskal literaturako autore nagusien biografia eta kalifikazio literario labur-laburrak diktatu egin zizkigula irakasle batek eskolan guri ere. Historiok eta testu-zatitxo antologikoak kopiatuz, hitz ezezagunak «aterazaz» eta zerrendak hiztegi antzera eginez, esaldi edo adjektibazio eta metafora sortatxoak bilduz, etab., falta ziren testuak norberak ordeztu behar izaten zituen. Historia guzti horren lekukotza geratu da Txikiaren koadernoetan (ik. or. 19).

Interesgarria hor «maisuen» galeria ere: Domingo Agirre, Jon Etxaide, Basarri, Salvatore Mitxelena, Zaitegi, Orixe guztien buru. Eta niretzat ohargarria, Arantzazu eta Lazkao arteko diferentzia: oso txiki-txikia be-



Txikiak, irakurzale amorratua izan arren, errealitatea bere baitan, inguruko lagunetan, herriko jendeagan, gudari derrotatua izandako aitaren esperientzian ikasi du, beti zabalik begiak eta belarriak.


netan. Alegia, 67-68rako beharbada joeretan diferentzia batzuk zer bait nabarmenduagoak egon zitezkeen («orixetar» eta «villasantetar» artean): ni neu Txikia bezalakoxe maisu eruedetan izan nintzen eskolatua (hiru urte naiz hura baino zaharragoa). Esan nahi dut, gerraosteko belaunaldikoak Seminarioetan abiapuntu berdintsuetatik abiatuak garela materiak zein formalki, horrela esatea badin badago. Geroko eboluzioa eta euskara batuaren prozesua eragingo duten kezkek ere (Iparraldeko euskararekin lotura, etab.), berdintsuak zirela, beste ezertan baino gehiago erritmoetan diferentziazio batzurekin apika. Lizenziarekin, Etxaideren maisugoa urte horietan destakatuko nuke. Exkixu nobelan ere (or. 71) arrazoi guztia-ekin egiten da Etxaideren maisugoaren aitortza erresistentziaren haserako garai eta giro gorriean. Gauzek beren tenorea izaten dute eta hura ez zen beti aipatu ohi diren beste protagonista batzuen oraindik, Etxaide zintzo sakrifikuarena baizik.

**«BASO OLERKARI».** Ikasi ahala praktikatu ere eginez, poesia mordoa utzi digu Txikiak, Arresetarrak edo Jautarkol bezalako bere maisuen eran landuak, teknika simple batekin jeneralean. Estudiante baten bihozkadak, hogeitabat-hogeitahiru urte artean onduak gehienak. Nik esan beharrik ez dago, ikusteko gogo eta kasik amorrazio literaria. Bere barneko kezka guztiei espresio literari bat forma poetikoan bilatzen die.

Poesion formak eta gaiak utzita, poesia egiteak berak zer significatu duen, kontsideratuko nuke. Niri Gandiaga baten historia gogoratzen bait dit; edo, apalago, neure denborakoa Arantzazuko Seminario zaharrean.

Oroitzen naiz behin, irakurtzen ari nintzela Hölderlinen barnetegiko

ikasturteez Tubingengo Stift famatu-  
tuan, Schelling eta Hegel eta beste  
lagun haiekin batera, formazio pietis-  
tan poesiak omen zuen garrantzia az-  
pimarratzen zuela autoreak. Ohizkoa  
bide zen ospaketa erlijioso, familiar,  
akademiko berezietan ikasleek poe-  
siak egitea eta publikoan deklama-  
tzea. Hölderlinen antzera, Txikiak  
baditu halakoak: a) batzuk, itxura  
guztiz, enkarguz bezala eginak ereti-  
rako — or. 51. Aita Domingori; 65,



**«Baso olerkaria» deritzo bere buruari harrokeria  
baterre gabe: ohartua zegoen, asumitua zuen horixe.  
(Gero ETakoak barbaroak dira: zein herritako  
Armadak ematen du beste hainbeste?).**

Aita Maurori; 102-103, Aita Sekundi-  
nori; or. 88, «Zorion agurra», non es-  
preski adierazten bait da «Aita Mai-  
suaren eskariz» paratu dela; ez arra-  
zoi gabe, hortaz, Jon Aranok «enkar-  
guzko poeta» eritzi dio, ik. or. 24. b) Beste batzuk urteko jaiegun seinalee-  
tarakoak: or. 89, San Mauro eguna;  
121, Pazko jaia.

Poesiaren erabilera festazko eta publiko honekin, aparte urtearen ibi-  
lera erlijiosoki ezegen kulturalki janz-

ten dela, ikasleak poesigintzari zale-  
tzen zitzaizkion, diosku Hölder-  
linen ikertzaileak: arrakastak presti-  
giatu egiten zituen lagunen eta ira-  
kasleen aurrean, gurasoak ere har-  
rotzen zituen, ikasle gaztearengan  
norbere burua gainditzen ahalegite-  
ko anbizioa sustatuz, etab. Axalke-  
riok baino berrenago, halere, poesi-  
gintzak eginkizun intimoago bat ere  
betetzen zizun hezkuntzazko sistema  
pietistan — eta, nik uste, berdin Laz-

koan: ikasleak bere baitan  
murgiltzen ikasten zuen;  
barneko sentimentuak eta hi-  
gidurak ohartsuki behatzen  
eta atzematen, berezten, for-  
mulatzen; autoanalisisatzen  
eta gero, autorretrato moral  
batean bezala bere barne-  
mundua ispliatzen.

Poesia horrela, haren balio  
pedagogiko eta sozialaz gai-  
nera, baliapide moral eta  
kontzientziaren formatzaile  
garrantzizko bat zen, katarsi  
isilean barnetasuna garbitze-  
ko eta pertsonalitatea finka-  
tzeko. Txikia bere barneko  
deiarri entzule eta obediente  
heriotzeraino bilakatu zaio.  
Eta, haren poesiak irakurtze-  
rakoan, nik uste dut lan eta  
ahalegin guztiotan ikusi  
behar dugula Txikia, bere  
baitako sentimentuetan mur-  
gilduta, haien morroi eta na-  
gusi egin nahita une berean.

Poesion handitasuna edo  
txikitasuna orain interesatzen  
ez zaigun beste asunto bat da.  
Hölderlin gaztearenak ere ez  
dira beste munduko gauzak,  
estudiante iaio baten saio  
agintzarizkoak bai bizi as-  
koak. Dena dela Hölderlinekin kon-  
parazio honek badauká lekuz kan-  
poko zer bait.

Izan ere Txikia bera oso kontziente  
zen, tradizio literari umil batean  
txertatuta zegoela euskal literaturan.  
Haren maisuen artean ez zegoen Pin-  
daro alturik eta Horatio galantik.  
Alabaina esanahitsua da: justu Txi-  
kiaren urte horietan euskal literatu-  
ran grina gaitza egon da europartze-  
ko eta unibertsaltzeko, «kaletartze-

**Txikia mugitzen duena ez da bere angustia esistentzial bat, kontzientzia eta deliberoa baino. Erantzunkizun soziala. Bokazioa.**



ko». Urbanoaren moda, nolabait esan. Txikiak ez du erakusten halakorik. Ez du atzera baserrira jo (Garoara). Baina edonora joan eta «non da mendia?», galdetzea izaten zuela lehenengo argitasun beharra, kontatzen du *Larrunek* bere klandestinitateko ibilakdiez (zenb.1, 1985, 9-10). Hirian deseroso eta mendian babesuta aurkitzen omen zuen bere burua. Literaturan ere forma tradizional ekta herrikoietan mugitu da.

Estudiatu zituen maisuen artean Zapirain eta Basarri topatzen dira. Auspoa bilduma osoa omen zeukan etxean (or. 16=). Joanes Borda eta Joanita Amundarainek (or. 30-31) bertsoetarako haren zaletasunaren eta gaitasunaren lekukotza ematen digute. Hitz batean, zortzikoteentzat testuak egokitu (29), antzerki herriarrak bultzatu, kondizioen arabera ko literatur eta kulturgintza militantea izan da Txikiarena. «Baso olerkaria» (49) deritzo bere buruari harrokeria batere gabe: ohartua zegoen, asumitua zuen horixe. (Gero ETA-koak barbaroak dira: zein herritako Armadak ematen du beste hainbes-

te?).

Euskaltzalearen iruki hau osatze-ko, Txikiaren interesa historian aipatu behar da: bai estudioetan eta bai poesigintzan soma daitezkeen historiaren interesa.

**E**uskaldun liberal-karlistentzat Euskal Herria Foruak zen. Aranarentzat, arraza. Oraindarrontzat, euskara

#### **ALFABETAKUNTZA AUTODIDAKTA.**

Halere *Exkixu*-ko protagonistarekin konparaziotxo bat egin gura nuke aurretik. «Bere barnean aberriaren sua irakiten sentitzen duen gazte bat» da *Exkixu*: «aurrerapen zoroak eraginda baserrira utzi eta kalera jaitsi behar» izandakoa. Urte horietakoxe prozesua izan da gure herrisketan.

Kalean ez dago gustora: etxean deserrira (or. 29) dauka, bere buruarentzako arrotasuna, galdutasuna nozitzen du. Barneko hutsunea, oinarriak koloka (17).

Beraz, *Exkixu* euskara birreskuratzen hasten denean, «barne-epel bila» (28) dabil, haurtzaro galdura (baserrira) nahi du itzuli (16-18). Euskara birreskuratzeak, hortaz, haurtzaroko habia, txoko gozoa sorostea esanahi du *Exkixuren* kasuan. Txikiari ez zaio somatzen holakorik. Haren aberria, euskara, ez dira aurkitzen esperientzia eta sentimendu pribatuen mailan, sentimendu guztiz pertsonalez kargatuta egonda ere. Adiera sozial arruntagoa dute. Txikia mugitzen duena ez da bere angustia esistentzial bat, kontzientzia eta deliberoa baino. Erantzukizun soziala. Bokazioa. Iparraldean exiliatuta dagoela bakarrik, eta «Gabon Miña»n, bilakatu da Txikiaren oroi-minean sorterrira «xoko goxoa, aiten aitena / gaur... txit maitteagoa» (*Hitz etena*, or. 41)

Esanguran ez bada, harrigarria da zein ihardunbide funtsean berdinak geratzen zaizkien halere bi-biei me-


todoan, euskara ikasteko eta lantzeko, Pasaiako langile mekanikoari eta monastegi beneditarreko estudiante barnetegitarriari. Seinale, zein ahalbide gutxi zegoen inon aukeran. Exkixu fraide batek emandako irakurgai baten bidez hasten da alfabetatzen («euskara neure kasa ikasten»); apez batekin solasean jazten da euskarari buruz; hitz «zailak» apuntatuz eta, aberasten du bere euskara; azken orduko idazle modernoak, Argia aste-

kari eta bertsolariak dira haren elikadura guztia. Bientzat Etxaide da inportantea, ez Aresti edo ez dakit zein. Orixe, bai. Inoiz alfabetatzearen historia idazten bada, «alfabetakuntza autodidaktika»ren faseak lehen kapitulu lodi bat beharko du.

Historiarekikoan diferentzia berdintsua errepara dezakegu. Exkixuk historiarekin modu esistentzial pertsonalean egiten du topo: aitonaren oroipenekin, bere auzoko karlista-

detako pasadizoekin; Txikiarentzat historiak balio politikoagoa, kontzeptualagoa dauka. Exkixuk Santakruz aipatzen du, Txikiak Arana Goiri. Historiarekin Exkixu «gizakate luze baten katenbegi bihurtuta» sentitzen da: «*eta denboraren joanaren zorabioa senditu nuen lehenengo aldiz; eta, une berean, barne-barnetik, neure hankak Altzaako lur-sailetan sustraiturik neuzkala*» (or. 56).

Txikiak zeukan historiaren kon-



**Bere bokazio politikoa eta borroka armatuak ere gizadia eta izadia anaikortzea izanen du helburua. Justiziazko ordenu bat munduan —zatitxo batean bederen— ezartzea.**

tzeptuaz ez naiz orain luzatuko: oro-  
karki Hitz etena-ren hitzaurrea n  
azalduta dago haren garrantzia eta  
modua (or. 20-21) eta bertan Rufino  
Mujikaren adierazpen oso egoki bat  
irakur daiteke. Lazkaon estudianteak  
historiaren ikusmolde abertzale kla-  
sikoa landu bazuen (Santa Cruz  
Apaiza edo La Democracia de Euska-  
di bezalako irakurgetekin, cfr. or. 23),  
klandestinitate urteetan ere historiaz  
arduratuta ageri zaigu, esaterako Ca-




ballero Basañezen  
Introduccion a la  
Historia de Euskal  
Herria-rekin (15),  
«indigest» fotoko-  
piatu terrorifiko  
bat, zuzen oroitzen  
banaiz. Historiaren  
ikuspegia batez ere  
urteotan «irauli» da  
gerraondoko be-  
launaldien burue-  
tan. Askatasuna,  
Pazkoarekin aso-  
ziazetik, Neguko Palazioari apun-  
tatzon Aurora gerrauntziarekin  
pasa da gazteon buruetan uztartua  
izatera.

(Guzti hau lotuta dago *Exkixu*-ren  
erreseinan Beltzak planteaturiko auzi  
batzuekin ETArekin historian, cfr. «Ba-  
serriko mutilak eta anti-intelektual-  
keria», *Larrun* 7, 1988, 124: baina he-  
men ez gara horretan sartuko).

**PENTSAMENDU ERLIJIOSOTIK  
PENTSAMENDU SOZIALERA.** Txikia-  
ren gogoeta aztertuz gero, historia  
baten historia txikia irakurtzen da:  
momentu tradizional batean hasi eta  
nola aldatuz doan, forma berri har-  
tzen. Gure herriak bezala, haren be-  
launaldiak bezala batez ere, abia-  
puntuan «euskaldun fededun»aren  
kezkak, sinboloak nabari ditu nagusi  
Txikiaren poesiak ere. Ikus «Agur  
Beasain» (or. 35-36): hogeitabat urte  
urduri zuen Txikiak. Konpara hori  
urte bereko «Anai maiteak» laburra-  
rekin alde batetik (or. 91: «*kristau  
t' euskaldun gorde zaitzate / zeru-lurren  
egilleak*»), funtsean izpiritu berdine-  
koa, eta urtebete bakarrik geroagoko  
«Nekeen Seme»rekin bestetik (or.  
115-116), ereti berdinean sortua, bai-  
na jadaneko ez izpiritu berdinean:  
«euskal» gaia aipatu ere gabe, zerua-  
ren lekuan iraultza proletariaren  
promesarekin bukatua.

Halere nik nahiago nuke hor mu-  
gimendu bat ikusi, ez eten bat.  
Transformazio bat. Sinestuna elizatik  
gabe ezkontzeak (*Larrun* 1, 1985, 7-8)  
ez dakit zer inportantzia daukan, no-  
lanahi ere irakurketa desberdina k  
izan ditzake; berdin, heriotze hurbi-  
laren premonizio baten larrian, sines-



**T**xikia bera oso  
kontziente zen, tradizio  
literari umil batean txertatuta  
zegoela euskal literaturan.  
Haren maisuen artean ez  
zegoen Pindaro alturik eta  
Horatio galantik

gabeak belaunikatu eta erreztatu egi-  
teak (*Exkixu*, 157). Azpi-azpian hor  
mugitzen diren urak, beharbada nor-  
berak ere ez daki oso ongi nola inter-  
pretatzen diren. Zalantzarik ez da-  
goena, jazotzen ari den irauliarena  
da.

Pentsamendu erlijiosotik pentsa-  
mendu sozialera, nolabait «marxis-  
tara», nik ez dut uste kontraesana,  
beraz etena ikusi beharra dagoenik.  
Izan ere, zer defendatzen du, bere  
fedea defendatzen duen herriak? Be-  
re tradizioa. Baina batez ere bere in-  
timitatea, bere buruaren konfidantza,  
bere barneko txukuntasuna, orde-  
nua, zuzenbidea, segurantzia (inork  
ez du aingeruengatik odola ematen);  
bere jaiak eta pozak eta penak, eta  
penen kontsolamendua - oraindik  
hautsi gabe dagoenean barrutik.

Historia ulertzeko modu politiko  
txar bat, politikoen izaten da. Gau-  
zek beti izan zuten sentidua puskatu  
denean alegia, beste sentidua bat as-  
matuz joan beharra dago gure gauzei.

Anbigutasun momentu hori «Txindorra»ren sinboloan soma genezake (or. 37-38 eta 53), Euskal Herriaren adieran irakurri ahal bada behintzat: sinbolo erdi erlijioso-mistiko, erdi erlijioso-politiko. Adieraren teinka horretatik sinboloetan, ikuspide berri bat nola sortzen ari den, «Olerki Min»ek erakusten du (117 ss): apezaren lekua langileak hartzen dizu; otoitzaren lekua, lana; Jainkoaren kreazioan lankide duzu gizakia.

Kontzeptuen munduak errotiko eraldakuntza bat jasan du Euskal Herriaren urte horietan, Txikia lekuko. Eraldakuntza horrek ez darama derrigor erlijiotik irreljiorea. Hots, munduaren sentido berriak berdin izan lezake balio erlijiosoa ala gabea; ala bien arteko zerbait, krisiaren erdian: beharbada, guri tokatu zai-guna, beti krisian egotea bait da. Orain nahiago nuke hori utzi halere.

Imagineria berria nola bizi-biziro ari den ernetzen eta burutzen ikus daiteke Txikia baitan: Euskal Herria, lanean ari den herria bilakatuz doa; lana, giza askatasunaren sakramentua bezala izadian; izadia, jainkozko graziaren eta berradisketzaren armonia kosmikoa...

1965ean «Beasain Festivo»rako paratu dituen bertsoetan (35 ss) euskalduna fededuna da: Beasain industrialia «len bezain kristau, euskaldun» izatea da Txikiaren kezka. Hurrengo urtean, aldiz, apirilaren 17an, urtekarri bererako (115 ss) langilearen gorazarre hutsezko poesia bat aurkeztu du. Lan egun geroago, halere, gaiak ez dio bakean uzten, langilearen meditazioan jarraitzen du (117 ss, bereziki 119-120): lanaren teologia berri batez, alegia, «euskaldun fededun» kontzeptu kontserbakoien ordeztu «langile kreatibo»aren ideia dinamikoarekin. Gaua da eta fraideak lo daude. «*Etengabeko lanean / gogor ari dan ola-gizona / da eliz-gizonen ordeztu / Jainkoari otoi dagiona*» (119).

Kontenplazioaren ondoan, beneditar gazteak duintasun maila pareko bat aitortzen dio ekintzari; liturgiaren alboan, industriari: langilea «ez itzez, baizik egitez / otoitz eta otoitz ari da / apaiz ta pralle edonor / bezin Jainkoaren

*serbitzari*» (Ib.). Lanaren teologiaren bilduma trinko hauxe daukagu hortaz: beharginak a) kreazioan hartzen du parte, Aita Jainkoak, hasi lana jarraituz eta burutuz; b) Erospean hartzen du parte, Kristo gizonduearen neke-oparia bere gain hartuz; c) Liturgian —hots, Elizaren otoitzean— hartzen du parte orobat: «*Apaizak mezetan aldarea lurrikatzen duen antzera / langile orrexek intsentsu-kea / bidaltzen du zeru aldera / lan-opari eskeintzaren agerkari*» (120).

**IZADIA.** Urte horietan jendea benetan kezkatu duen arazo bat izan da, lana edo beharra zein sendidorekin ulertu. Ez dute noski gogoeta-molde berdina egin Arizmendiarrietak, Santamariak, ez dakit zeinek, Arestik, Txikiak.

**E**z dute noski gogoeta-molde berdina egin Arizmendiarrietak, Santamariak, ez dakit zeinek, Arestik, Txikiak. Baina balio unibertsal humano bat bilatzen zuten guztiek

kiak. Baina balio unibertsal humano bat bilatzen zuten guztiek.

Izadiaren kontzeptua izan da beste arazo bat gure eraldakuntza kulturean. Nola kokatu munduan? Nola ulertu mundu horretan gure burua?... Gizakia naturarekin teinkan bezala bizi da nolarebait. Bere naturarekin ere bai, hortaz, hein batean: gizakia bere buruari arrotz, estraino zaio, anima(lia) urratua da bere barnean. Txikiak erlijiozko tradizioko baliapideekin erantzun dio problemari. Bestetik, izadia poetizatu eta humanizatu duen Lizardirekin: kreazio guztia familia bat da, «lurraren aizpa itxasoa»rekin (60); itsaso guztiz familiar batekin are, «*euzkoen itxaso / gaur asarre, biar uso*» (86), etab.

Baina aberatsagoa da, seguru asko,

ikuspegi teologikoa: drama kosmikoarena. Hau da: gizakiak arerio du mundua (izadia), baina gizakiak arerio du gizakia ere (bere anaia; beraz, bere burua ere): gizabereak bata-beste asasinatu egiten du. Gizakiaren esentzia borroka da: izadiarekin, gizadiarekin. Baina hori —Txikiaren gogoetak hala dio—, ez da naturak horrela egin duelako, ezpada horrela gizakiak bihurtu duelako bere historia kaintarekin (61). Gaiztoa ez da natura; gizakiak hartaz egin duena, bai. Eta munduaren tragedia adina gizadiaren gaiztakeria guztia bere pertsonala bezalaxe sentituz, Txikiak barkamena eskatzen du: «*Barka izadi onen / mundu onen / garraxiagatik / eta odol beroz il nuan / nere anai Abelengatik*» (62). Natura eta historia planteamendu batean bateratzen dira horrela. Lanarekin eta izadiarekin, historiaren arazoa izan da pentsamendu berriaren hirugarren kapitulua.

Bere bokazio politikoak eta borroka armatuak ere, hortaz, gizadia eta izadia anaikortzea izanen du helburua. Justiziazko ordenu bat munduan —zatitxo batean bederen— ezartzea.

ETAren sorrerako historia ez litza-teke poesia apal guzti hau gabe idatzi behar: imaginariaren berriztea, sinboloen transformazioak, helburu ideolistak, kapitalismo basati bat gupida gabe birrintzen ari zen naturaren sentimendua (oraindik ez zegoen ekologiaren kontzepturik eta naturaren birgogoeta Teilhardek edo Oteitzak bideratzen zuten), historian esperantza baterako leku aurkitu nahia, belaunaldi baten pentsamenduko historia lurpetar intimoa gerraoste larua batean, diktaturan.

Hitz etena, pistolek moztu zuten bertso kanta: gogoeta etena da, geratu zaigun Txikiaren apurra. Prozesuaren hasieran zeogen pentsamendua da, haren poesietan atzematen duguna. Mugimendu handia bilakatu da gero: euskal historiaren jabe, kontzientziaren mailan eta praxiaren mailan, bilakatu nahi duen mugimendua —eta Txikiari eskerrak, hain zuzen, hein handi batean. Kultur-gintzatik hasi-eta etorri da borroka armatu horretara eta horren sentido konkretu horretara ■